



UDAL DEIALDIA 2024 DULANTZIKO JAIETAN TXOSNAK JARTZEKO

Udalak baimena emango du 2024ko Herriko Jaietan txosnak jartzeko, deialdi publiko baten bidez eta ondoko baldintzen arabera:

1.- Txosnen ezarpenak ez du merkataritza-etekinik ateratzeko helbururik izango. Txosnak jarri ahal izango dituzte Dulantziko herri-kolektiboek: Blusen Koadrilak, Elkarte Gastronomikoak edota Aisialdikoak, Elkarte Kulturalak, Gazte eta Kirol Elkarteak.

Estatuturik gabeko kolektibo edo talde egonkorrek kideen zerrenda eta gutxi gorabeherako etekinekin garatuko dituzten jarduera soziokulturalen programa bat aurkeztu beharko dituzte, aurreikusitako jarduerak, garatzeko datak eta kalkulaturiko kostuak adierazita.

Lehenetsuna izango dute legez eraturiko Udalerriko Elkarteetan edo horiek bermaturiko kolektiboen eskabideek.

Ez zaie onartuko txosna ezartzeko eskaera adin txikikoek eraturiko kolektiboek.

Eskabideak aurkeztu beharko dira udal bulegoetan horretarako adierazitako lekuan 2024ko apirilaren 10a baino lehen, dagokion dokumentazioa erantsita, eskatuko balitz.

2.- Txosna ezartzeko dagokion udal baimena beharko da. Txosna Udalak zehazturiko lekuan ezarriko da, eta gehienez ere 2 jarriko dira.

Behin eskabideak aztertuta 1. puntuko baldintza betetzen duten eskabideek ezarritako kopurua gaindituko balute, zozketa bidez esleituko dira tratu berdintasuna bermatzeko.

3.- Txosnetan ondokoak banatu ahal izango dira:

Edaria eta janaria - azkena ontziratua baino ez.

Jarduera ludiko edota kulturalak garatu ahal izango dira.

Azken kasu horretan, baimendutako taldeek talde bateratua sortu beharko dute proposaturiko ekitaldien programa antolatzeko eta ekonomikoki eusteko (finantzaketa).

4.- Udalak ezarritako txosnen kokapenaren arabera, txosna bakoitza non jarri esleipendunen artean adostuko dute. Desadostasuna balego, lekuak zozketa bidez esleituko dira.

5.- Dela bakarka, dela kolektiboki, Erantzukizun Zibileko Aseguru bat izango dute indarrean dagoen legeriak ezarritako zenbatekoan.

6.- Baldintza higienikoak:

a.- Kokapena kutsaduratik edo osasunerako kaltegarria izan daitekeen edozein arrazoitatik at egongo da.

b.- Txosnek argindarra izango dute, baita edateko ura ere, eta udal saneamendu sarera konektatuta egongo dira. Estolda-sarera ez dira botako barnera ezinezko substantziak edo hiriko hondakin-urak.



c.- Ontziteria behin erabiltzekoa izango da.

d.- Txosna muntatzeko erabilitako materialak egokiak izango dira haren erabilerarako, txosnaren erresistentzia eta sendotasuna bermatuta.

e.- Elikagaiak eta edariak Baimendutako Industrietatik eskuratuko dira eta euren jatorrizko ontzietan gordeko dira zerbitzatu arte. Elikagaiak erabiltzerakoan bereziki erreparatuko zaio baldintza higienikoen betetzeari.

f.- Instalazioak garbi baino garbiago mantenduko dira. Txosna egunero garbituko da bereizita gorderiko produktu desinfektatzaileekin, argi eta garbi etiketatuta egongo direnak. Plastikozko edalontzi eta materiala txosnaren perimetrotik 5 metrora jaso beharko da.

g.- Hondakinak ontzi estankoetara bota beharko dira, eta horiek egunero hustu beharko dira.

7.- Bestelako baldintzak

a.- Su-itzalgailuak izango dituzte sor litezkeen suteak prebenitzeko.

b.- Ez zaie alkoholik zerbitzatu 18 urtetik beherakoei.

c.- Prezioen zerrendak irakurtzeko moduan egongo dira ikusgai, jendeak galdetu behar izan gabe.

d.- Birzikla daitekeen materiala (kartoiak, beirak, etab.) bereizita botako da hurbileneko edukiontzietara.

e.- Jaiak bukatutakoan, txosnak astebeteko epean desmuntatu beharko dira, epemuga 2024ko irailaren 30a izanda.

Baldintza hauek ez betetzeak txosna jartzeko baimen eza edo jaietan berau ixtea ekar lezake.

Alegria- Dulantzin, 2024ko Martxoaren 5ean

ALKATEA

Izp.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria

